

Pentsio-plana Estatuko Administrazio Orokorrean

A) Oinarrizko kontzeptuak



Nor dira planaren partaideak?

Erakunde sustatzaileetako (ministerioak, erakundeak, erakunde publikoak, eta abar) enplegatu publikoak dira, [planaren zehaztapenetan](#) ezarritako baldintza hauek betetzen dituztenak, hain zuzen:

- Erakunde sustatzailearekin gutxienez hilabeteko antzinatasuna izatea lan-edo zerbitzu-harremanetan, haren izaera juridikoa edozein dela ere, karrerako funtzionario, bitarteko funtzionario, langile lan-kontratadun, kontratatutako langile, behin-behineko langile edo goi-kargudun gisa.
- Partaide izateari uko egin ez izana.

Estatuko Administrazio Orokorrean pentsio-planari atxikitzea eskatu behar dut?

Ez. Alta automatikoki ematen da parte hartzeko baldintzak betetzen badira.

Pentsio-planari atxikitzeko betebeharra dut?

Ez, atxikipena borondatezkoa da beti. Alta automatikoa denez, ordea, parte hartu nahi ez baduzu, atxikitzeari idatziz uko egin behar diozu, pentsio-planean sartu eta bi hilabeteko epean. Horretarako, dagokion erakunde sustatzaileari inprimakia eskatu eta hura bete behar duzu.

Atxikitzeari uko egiteak berekin dakar sustatzaileak pentsio-planari egindako ekarpenak jasotzeari uko egitea.

Nola izan dezaket nire eskubide finkatuen berri Internet bidez?

- 1) Sartu Enplegatu Publikoaren Atarian (FUNCIONA): <https://funciona.es> «Nire ordainsariak» fitxa: «Nire pentsio-plana».
- 2) Sartu erakunde kudeatzailearen web-orrian. Horretarako:
 - a) BBVAn kontu korronterik ez baduzu: Joan BBVaren bulego batera zure partaide-zenbakia eman diezazuten. Zenbaki horrekin eta zure IFZrekin, erakunde kudeatzailearen web-orrian (www.bbvaassetmanagement.com) alta eman ahal izango duzu eta «Nire pentsio-plana» ataleko datuetara sartu ahal izango zara. BBVaren bulegoetan korrespondentzia etxera bidaltzea aktibatu baduzu, partaide-zenbaki hori jasotzen duzun aldizkako informazioan ikusiko duzu.
 - b) BBVAn kontu korrontea eta zordunketa- edo kreditu-txartela badituzu eta Internetera sartzeko sistema aktibatu baduzu, bezeroaren

produktuen posizio orokorra kontsultatzean, EAOren pentsio-plana agertuko zaizu.

B) Sustatzailearen kontribuzioak eta borondatezko ekarpenak

Aurrekontuan hala aurreikusten bada, erakunde sustatzaile bakoitzak urteko kontribuzio arrunt bat egingo du. Zenbateko osoa ekitaldi bakoitzeko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean zehaztuko da.

Ekarpenak egiteko betebeharra dut?

Ez. Sustatzailea bakarrik dago behartuta pentsio-planari kontribuzioak egitera, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean urte bakoitzerako ezartzen denaren arabera. Partaideek borondatezko ekarpenak egin ahal izango dituzte.



Zer ekarpen egin dezaket borondatez urtero?

Gaur egun, enpresek gizarte-aurreikuspeneko sistemarako egiten dituzten kontribuzio eta ekarpen guztien urteko gehieneko zenbatekoa 1.500 eurokoa da urtean; kopuru hori 8.500 eurotan handitu daiteke, betiere gehikuntza hori enpresa-kontribuzioetatik edo langileak gizarte-aurreikuspeneko tresna bererako egiten dituen ekarpenetatik badator, taula honen arabera:

Contribuciones empresariales	Aportación máxima del trabajador (PL PGE 2023)	
	Coefficiente	Importe máximo
<= 500 €	2,5	entre 0 y 1.250
500,01 € - 1.500 €	1.250 € más el resultado de multiplicar por 0,25 la diferencia entre la contribución empresarial y 500 €	Entre 1.250 y 1.500
> 1.500 €	1	Entre 1.500 hasta 4.250 €

Partaideek 60.000 eurotik gorako diru-sarrerak badituzte, koefiziente hori 1 da.

Nola egin ditzaket borondatezko ekarpenak?

Aparteko zein aldizkako borondatezko ekarpenak egin daitezke, nahi den aldizkakotasunarekin, ekarpena partaidearen kontu korrantean helbideratuz, BBVAren



bulegoen bitartez. Bezeroek www.bbva.es web-orriaren bidez ere egin ditzakete.

Zein da ekarpenen fiskalitatea?

Sustatzailearen kontribuzioek partaidearen zerga-oinarria handitzen dute lan-errendimenduaren kontzeptuan. Hala ere, kontribuzio eta ekarpen guztiek, sustatzailearen nahitaezkoek zein partaidearen borondatezkoek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarria murrizten dute, sustatzailearen ekarpenak fiskalki neutroak (ez dute zergarik gehitzen) badira ere. Partaidearen kontribuzio guztietarako murrizketaren gehieneko muga osoa honako kopuru hauetatik txikiena da: ekitaldian partaideak banaka jasotako lanaren eta jarduera ekonomikoen etekin garbien baturaren % 30, edo 1.500 euro urtean.

C) Prestazioak

Noiz kobratu dezaket prestazioa?

Erretiroko, baliaezintasuneko, heriotzako edo mendekotasuneko gertakariaren bat gertatu ondoren, onuradunak prestazioa eskatu ahal izango dio funtsa kudeatzen duen erakundeari, zuzenean edo BBVAren edozein bulegoren bidez.

Badago plana kobratzeko eskubidea emango didan beste egoerarik?

Bai, salbuespenezko egoeraren bat, hala nola:

- Partaidearen langabezia luzea.
- Partaidearen, ezkontidearen, aurrekoen edo lehen mailako ondorengoen gaixotasun larria, baldin eta harekin bizi badira edo haren mende badaude, eta zenbait baldintza betetzen badira.

D) Informazio-kanalak

Estatuko Administrazio Orokorraren pentsio-planaren web-orria:

<http://www.plandepensiones-age.es/public/funcionaPlanPensiones.html>

Funcionan (Enplegatu Publikoaren Ataria):

[Funciona - Pentsio-plana - Hasiera](#)

Erakunde sustatzaile batzuen intranetean pentsio-planari buruzko informazioa eskaintzen da.

Erakunde kudeatzaileak lau informazio-kanal ditu:



1. www.bbvaassetmanagement.com web-orria, zerbitzuan alta eman ondoren. Horretarako, partaide-kopurua eta IFZ behar dituzu. Hona esteka: <https://bbvaassetmanagement.com/es/p-revision-colectiva/>
2. BBVA pentsioen linea, enplegu-planei buruzko kontsultetan espezializatua, **900 108 624** telefonoaren bidez, astelehenetik ostiralera (jaiegunetan izan ezik) 08:00etatik 16:00etara eta, abuztuan, 08:00etatik 15:00etara.
3. Erakunde Gordailuzainaren bulego-sarea Espainia osoan. Bertan, partaide/onuradun bakoitzak bere planaren bilakaerari buruzko informazioa eska dezake, baita postaz bidaltzen zaion informazioa berrargitaratzea eta borondatezko ekarpenak bideratzea ere.
4. Erakunde gordailuzainaren kutxazain automatikoen sarea Espainia osoan, BBVA kontu korrantea eta zordunketa-edo kreditu-txartela duten partaide/onuradunentzat.

